

PAI-IIP programak Nafarroako eskoletan



INGELESA IKASTEKO PROGRAMAREN GAINeko TXOSTENA. IIP-PAI

Aurkibidea

<i>Txosten hau egiteko arrazoiak</i>	
<i>Zer da IIP (PAI erdaraz)</i>	
<i>Txostena egiteko prozedura.....</i>	3

IIP PROGRAMAREN ARGI-ILUNAK

<i>Inposaketa</i>	
<i>Ezarpena baino lehenagoko informazioa</i>	
<i>Ezarpena ondorengo laguntza.....</i>	4

<i>Programazioa, metodologia eta materialak</i>	
<i>Koordinazioa</i>	
<i>Behar espezifikoak dituzten ikasleak, beranduago</i>	
<i>eskolaratuak, kurtso errepikapenak</i>	
<i>Plantillak.....</i>	5

<i>Formazioa</i>	
<i>IIP-PAIren ezarpenaren ondorioz, zer galtzen den</i>	
<i>Kritikak isilarazteko ahaleginak</i>	
<i>Laburbilduz.....</i>	6

BIGARREN HEZKUNTZAKO SEGIDA: ATAL	
ELEBIDUNAK	
STEE-EILAS SINDIKATUAREN	
ONDORIOAK	
<i>TXOSTENAREN HELBURUAK.....</i>	7

INGELESA IKASTEKO PROGRAMAREN GAINEKO TXOSTENA. IIP-PAI

Txosten hau egiteko arrazoiak

Heldu den ikasturtean beste 20 ikastetxetan ezarriko da programa hau, eta orotara 60 ikastetxetan izanen da.

STEE-EILASek, arrazoi asko tarteko, modu esperimentalean ezartzen hasi zen momentutik beretik bere kezka agertu zuen, eta hedatu baino lehen ebaluatua izatearen beharra azpimarratu zuen. Hori guztia dela eta, Sortzen-Ikasbatuaz eta ELA eta LAB sindikatuarekin batera 2007-2008 ikasturtean eleaniztasunari buruzko jardunaldiak antolatu genituen Nafarroako Unibertsitate Publikoan; bertan gain eskarmentu handiko pertsonak hartu zuten parte, eta hainbat esperientziaren berri eman zuten. Harrezkerotik kezka handiz ikusi dugu programaren ezarpena; hauek arautuak izan ziren hainbat urtetan modu alegalean izan ondoren 110/2011 Agindu Foralaren bidez. Nafarroako Kontseiluan aurkeztu zutenean eskola publikoko ordezkariaren ezetza izan zuen, bai eta APYMA federazioena ere.

Azken urteotan gure sindikatuak behin eta berriro eskatu dio Departamentuari programaren gaineko informazioa zabaltzeko. **Departamentuak, berriz, bilera monografikoa egiteko proposamenari ezetz esan izan dio sistematikoki, programa hau bere ildo estrategikoaren barruan zegoela argudiatuz, eta, ondorioz, ez zuela zertan eztabaidatu sindikatuarekin.**

Guk oso bestela pentsatzen dugu, are gehiago kontuan hartzen badugu STEE-EILAS hezkuntzako sindikatua dela, sindikatuok hezkuntza eskaintzaren gaineko informazioa izan ahal eta behar dugula, **batez ere programa horrek zuzenki edo zeharka irakasleon lan baldintzetan ondorioa duenean.**

Zer da IIP (PAI erdaraz)


Ingelesa Ikasteko Programa da IIP. Lehengo TIL da (Tratamiento Integrado de las Lenguas /Hizkuntzen Trataera Bateratua).

Izen aldaketa adierazgarria da, eta horren atzean euren helburua agerian dago: bertako hizkuntzak eta kanpokoak ez dira modu bateratuan landuko. **Ingelesaren asmo ezkutua agerian dago: ingelesaren irakaskuntzaren bultzada kostatuta.** Hainbat ikastetxetan hamarkada luzea daramate hizkuntzen programazio integratua egiten, arrakasta handiz, eta horretarako ahozko zein idatzizko testuak lantzen dituzte, hizkuntza batean ikasitakoa besteetara pasatuz. Hau hedatu eta jarraitu moduko bidea zen, baina... bazter batean utzi dute; horren orde, sasi-murgiltze programaren aldeko apustua egin dute, bertako hizkuntzen ezaguera axolagabeki utziz.

Txostena egiteko prozedura

IIP ezarrita duten ikastetxeetara, zein heldu den urtean ezarriko diren ikastetxeetara galdera-sorta bidali dugu. Hainbat erantzun jaso ditugu, baina datuen bilketa erraztu nahian, elkarrizketak ere egin ditugu, eta horretarako hainbat ikastetxe hautatu ditugu aleatorioki. Beste hainbat kasutan informazio osagarria lortu dugu egindako elkarrizketa informalean, ikastetxeetako ordezkarien bidez, edota Uharten eta Tuteran egindako irakasleen asanbladetan.

Ateratako ondorioak 20 ikastetxetako elkarrizketetan bildutako informaziotik atera dugu (horietatik 13tan IIP martxan dute, eta 7tan heldu den urtean izanen dute), beraz, heren batetik jaso dugu informazioa.



IIP PROGRAMAREN ARGI-ILUNAK

Jasotako erantzunak bat datoz neurri handi batean, eta honek gure kezka baieztatu ez ezik, handitu ere egiten du, aurreikusten genituen arazoak egiaztatzen direlako.

Alde positiboak aipatzen hasiko gara: **IIP ezarrita dagoen ikastetxeetako irakasleen ardura maila eta inplikazioa aipagarria eta txalagarriak dira, baina, hala ere, honako arazo eta oztopoak azpimarratzen dituzte:**

Inposaketa

Lehenik eta behin, esan behar dugu kasu gehienetan Departamentuak berak hautatu dituela IIP ezartzeko ikastetxeak; zenbait kasutan, berriz, ekimena Udalaren hautagairen batengandik sortu da, edota familiaren batengandik. Ez da egia – Departamentuak zabalduzako informazioa ukatuz – IIP ezartzeko ekimena ikastetxeetako Eskola Kontseilua osatzen duten bi ordezkarietatik sortu denik (familia, udal eta langileengandik).

Ikastetxe gehienetan TIL/PAIren ezarpena inposaketa dela uste osoa dute. Ez da alde aurretiko kontsultarik izan klaustroan, edota familiei; modu berean jokatu dute aurrerantzean, ez baitituzte kontuan hartu euren iritzia kontrakoa nabarmenki izanik ere.

Ezarpena baino lehenagoko informazioa.

Klaustroari zein familiei emaniko informazioa partziala izan da. Onurak baino ez dituzte aitatu, emaitza zoragarriak nabarmendu dituzte, baina ez dute informazio hau sostengatzen duen inolako ebaluaziorik erakutsi, edota British programaren ebaluaziorik. Ikastetxeko matrikula mantendu edo igotzeko bide bezala "eskaini" da. Argudio hau baliagarria da ikastetxeren batean edo bestean; hainbat kasutan ikastetxe bakarreko herrietan ezarri da, inguruko herrietan martxan dagoen D ereduari alternatiba gisa.

Formazioa eta aholkularitza eskaini zituzten.

Ezarpena ondorengo laguntza

Ia kasu guztietan lehenengo ikasturtean nolabaiteko aholkularitza jaso dute. Hasierako urteetan ezarri zen ikastetxeetako irakasleek nolabaiteko koordinazioa gauzatu zuten euren artean. Programa hedatzearekin batera, egun, zuzendaritza taldeen arteko bilera bat edo beste egiten da, **baina on-line eskaintzen den aholkularitza eta formazioa guztiz urria direla irizten da.**



Programazioa, metodologia eta materialak

IIP-PAI programarako ez dago inolako programazio edo material zehatzik. Helburuak, gutxiengo edukiak, ordutegiaren banaketa, ebaluaziorako irizpide komunak...ez daude zehatzurik; ez dago testulibururik, ezta material zehatzik ere. Irakasleen esku gelditzen da hau guztia.

Honen guztiaren ondorioz, irakasleek "euren lanari buruko inpresioak" baino ez dituzte, uste dute ongi ari direla, baina ziurtasun maila hala-holakoa da, eta honek inseguritatea sortzen die.

Moodle plataforma baino ez dute, ideia bat edo beste eskaintzen ahal diena, baina material berriaren sortzearen eta programazioaren zatirik handiena irakasleek egin behar dute, eta honek lan eskerga suposatzen die, eta horretarako ez dute denbora zehatzik.

Koordinazioa

IIPn lan egiten duten irakasleek kotutoretza lana dute, beraz, ezinbestekoa da koordinazio estua izatea bi tutoreen artean, programazioak burutzeko, segimendua egiteko eta ikasleen ebaluazioa gauzatzeko. Behar adina denborarik ez izatea da ikastetxe guztietan azpimarratzen den gabezia.

Behar espezifikoak dituzten ikasleak, beranduago eskolaratuak, kurtso errepikapenak

Ez dago aparteko aholkularitzarik behar berezia duten ikasleen kasuetarako. Jasotako informazio bakarra ARCE proiektuan dago (Erkidegoen arteko koordinazioa egiten duten plataforma digitala da, eta eredu elebidunetan honelako ikasleen integrazioa aztertzen du).


Kanpotik etor daitezke ikasleak eta edozein etapatan sartu. IIP baino ez bada eskaintzen, euren integrazioa zaila izanen da.

IIP martxan dagoen ikastetxeetan, ezarpenaren aurreko ikasturteko ikasleek ezin dute maila errepikatu, hala balitz, IIPn sartuko lirateke ingeles maila nahikoa izan gabe.

Plantillak

IIP eskaintzen den ikastetxeetan behar bezalako hizkuntza titulazioa ez duten irakasleek arriskuan ikusten dute euren lanpostua. Hasiera batean irakasle funtzionarioen lan-baldintzak kontuan hartu badira ere, epe ertainean borondatearen kontrako desplazamenduak izanen dira. Gainera, programa hedatzen hasiz gero ingeles **perfila ez duten irakasleen estabilitatea guztiz ezinezkoa izanen da, eta behin betiko destinoa lortuta ere, desplazaturik izanen da behin eta berriro.**

Enplegu eskaintza publikoa ez den bitartean, kontratatu laborek hartzen dute ardura hau, eta honek plantillen ezegonkortasuna dakar. **Programa hauetan ari diren irakasleek haur hezkuntzan edo lehen hezkuntzan izan behar dute abilitazioa, ingelesaren titulazioaz gain; zenbait kasutan baldintza hauek betetzen ez badira ere esleitzen dira lanpostuak.**



Departamentuaren plangintza eza nabarmena da gai honetan, azken oposaketetan 100 lanpostu baino gehiago eskaini baitziren ingelesean. Lanpostu bat eskuratu zuenak soilik izanen du behin betiko destinoa baldin eta IIP-PAIn aritzeko baldintzak betetzen baditu: C1 eta etapa horietako batean abilitaturik izatea (haur edo lehen hezkuntzan). Bada araudi bat esaten duena ezinbestean lortu behar dela lehenengo destinoa oposaketak gainditu diren espezialitate eta hizkuntza berean; beraz, lehen aipatutako bi baldintzak (c1 eta abilitazioa) izan ezean, litekeena da inoiz ez izatea destino finkorik.

Irakasle funtzionarioen artean gutxi dira bi baldintza hauek betetzen dutenak, eta horri aurre egiteko premiazko abilitazio prozesurako deialdia egin du Haur Hezkuntzan. Honek, beste behin ere, planifikazio eza agerian uzten du.

Hau gutxi balitz, IIP-PAIn aritzeko baldintzak betetzen dituztenen artean, asko dira programan aritu nahi ez duten irakasleak, horrekiko desadostasunagatik, edota dakarren lan-karga eskergagatik. **Irakasle horietako hainbat presioak jasaten ari dira programan aritzea onar dezaten.**

Ezbairik gabe, zaila bada formazio eta titulazio egokia duen irakasle nahikorik aurkitzea, are zailagoa izanen da irakasle ordezkooak aurkitzea Departamentuak horren hedatzearekin segitzen badu ikastetxe gehiagotara.

Formazioa

Hasieran emandako formazio eskaintza, eta etengabea, ez dira nahikoak. TILen hasieran hainbat irakasle Kanadara joan ziren formazioa jasotzera, eta gero ikastaro bat edo beste izan da Iruñean; **gaur egun ematen den formazioa guztiz urria da.** Ezinbestekoa da formazio jarraitua, nahiz linguistikoa, nahiz metodologikoa.

IIP-PAIren ezarpenaren ondorioz, zer galtzen den


Sortu berriak diren ikastetxeetan izan ezik, ezarri den beste ikastetxeetan bestelako bideari jarraitzen zioten, bertan lehentasunak ezarriak zituzten, euren lan-ildoak: bizikidetzeta, irakurketa programak, matematika, hezkidetzeta ... eta hau guztia bigarren mailan geratzen da oraingo honetan.

Kritikak isilarazteko ahaleginak

Ikastetxeetan programa honi egiten ari zion kritikak etengabe agertzen dira publikoki, eta txosten honetan agertzen diren hainbat eza azpimarratzen dira. Departamentuak, aditu beharrean, eta behar bezalako giza baliabideak jarri beharrean, kritikak isilarazten saiatu da, eta horretarako mehatxuak eta errieta eginda.

Laburbilduz

Egin beharreko eskaintzaren planifikazioan huts nabarmena egin dute, eta berdin jokatu dute programa behar bezala gauzatzeko beharrezkokoak diren giza baliabideak zehaztean. Materialak, formazioa eta koordinazioa ez dira nahikoak. Hezkuntza Komunitatearen aldeko jarrera izan gabe ezarri dute programa, eta egindako kritikak aditu gabe. **Programa osoa irakasleen borondatean sostengatzen da, euren inplikazioan eta lana ongi egiteko goioan.**



BIGARREN HEZKUNTZAKO SEGIDA: ATAL ELEBIDUNAK

Orain arte Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakar batean zegoen British programa, Tuteran. Heldu den ikasturtetik aurrera Iruñeko beste ikastetxe batean hasiko da.

Bigarren Hezkuntzako beste hainbat ikastetxetan atal elebidunak daude, eta horietan arloren bat ingelesez ematen dute.

Ez dago planifikazio egokirik eskaintzan. Irakasleen aukeren araberakoa da eskaintzen den arloa urtez-urte. Ondorioz, gerta daiteke lehenengo mailan musika ingelesez ematea eta bigarren ikasturtean zientziak, hirugarrenean hezkuntza fisikoa...

Eskaintza hau ez da orokorra, eta sarbidea ematen zaie soilik ingeles maila egokia duten ikasleei, beraz, ez ditu bermatzen ikasle guztiek duten berdintasuna eskaintzan. Ez da kontuan hartzen nola erdietsi den ingeles maila egokia, kasu gehienetan maila egokia lortu da klase partikular eta atzerriko egonaldiei ezker. **Hau sistema klasista da eta ez du - inola ere - bermatzen ikasleek duten berdintasunik aukeratzean.**

Planifikaziorik gabeko inposaketa etapa honetara ere iritsi da. Heldu den ikasturtean ezarriko den ikastetxean, Torre Basokon, aurrematrikulan bi programa eskaintzen ziren soilik: British eta sekzio elebidunak, eta kontuan hartu gabe errepikatu behar zuten ikasleak, behar bereziak dituzten ikasleak, edo programa hauek aurrera eramateko beharrekoak ziren irakasle gaitu nahikorik ba ote zen ala ez. Ikastetxeak agertu duen kontrako jarrera irmoari esker, atzera egin du Departamentuak. Ikastetxeetako irakasleek ongi ezagutzen dute errealitatea, eta hainbat kasutan aditzen zaie.

STEE-EILAS SINDIKATUAREN ONDORIOAK

✓ Ikasleen atzerriko hizkuntzetan erdiesten dituzten gaitasun komunikatiboak hobetu behar direla uste dugu, **baina beti ere bertako hizkuntzen ezagueratik abiatuta, eta edonori ukatu gabe euskaraz ikasteko eskubidea.** Ezin dugu onartu ingelesa ikasteko programen ezarpena ikastetxe batean bertako hezkuntza komunitatearen oniritziarekin izan gabe, eta euskaraz ikasteko eskaera egin duten ikastetxetakoei aukera ukatzea.

Gaitasun komunikatibo egokia lortze aldera ez dago bide bakarra, hau da, murgilketa edo sasi-murgilketa. Etapa guztietan helburuak zehaztea, metodologian trebatzea... garrantzitsuagoa da.

✓ **Departamentuak kostatuta ezarri nahi izan ditu programa hauek, eta modu eroan hedatu ditu Nafarroan barrena atzerabiderik izan ez dezan.** Planifikazio ezaz egindako hedatzea da, irakasle egoki nahikorik izan gabe, helburu argirik izateke, eta inposaketaz baliaitu da eta soil-soilik sostengatu ditu irakasleen borondatean eta lana ongi egiteko gogoan. **Behin martxa jarrita, ez du erantzun egokirik, ezta behar bezalako baliabiderik sortzen diren arazoei erantzuteko.**

Oso bestelako jarrera erakutsi du Departamentuak D eredia hedatzeko Nafarroan. Kasu horretan trabak eta debekuak izan dira nagusi. Ez dute inolako oztoporik jartzen Nafarroako Erdialdean ikastetxean itxi ez daitezkeen, edo bertako ikasleek milaka kilometro egin behar dutenean D eredian ikasi ahal izateko. Hau guztia D eredia eskaintzen ez dutelako.



✓ **Ingelesean titulazio egoki ez ezik, Haur Hezkuntza edota Lehen Hezkuntzako espezialitatea duten irakasle nahikorik ez dagoela ikusita,** ingelesa jakitea lehenetsun bihurtu dute, behar bezalako titulaziorik ez izanik ere; hainbat kasutan **ingelesaren ezaguera ziurtatzeko maila bera ere jaitsi da.**

✓ Programa hedatu baino lehen ebaluazioa egiteko konpromisoa zegoen. Bete gabe dago konpromiso hau, behin eta berriro exijitu bazaie ere. Ikasleek TIL programetan haur hezkuntza bukatzean ahozko ingelesean erdietsi duten maila ebaluatu da soilik, eta ondorioztatu da ingeles maila hobea zutela (horretarako ez zen beharrezkoa ebaluazioa egitea) **Ebaluazio egokia ezinbestekoa dela azpimarratu nahi dugu,** eta ikasleek erdiesten duten gaitasuna ez ezik, beste hainbat arlotan ere ebaluatu beharra dago: irakasleak, koordinazioa, helburuak, materialak, irakasle, ikasle eta familien ase-betetze maila...

✓ **Beharrezkoa deritzogu hizkuntza politika eta honek hezkuntza sisteman duen eraginari buruz eztabaida zabal bat hastea.** Nafarroan egun ditugun eredu linguistikoen gaietik doan programa hauek eta berauen ezarpena euskararen inmertsio programen atzeratzea dakar. Gure ustetan, hau zen hasieratik administrazioak zuen asmo bakarra.

TXOSTENAREN HELBURUAK

Honen bitartez ondorengo helburuak erdietsi nahi ditugu:

Hezkuntza Komunitate osoarekin konpartitzea informazioa: Sindikatuetara, parte-hartu duten ikastetxeetara, APYMA federazioetara bidaltzea, eta Politika linguistikaren gaineko eztabaida sozialari ekitea, berez programa honek gainditzen dituen hizkuntza ereduak aztertzeke, eta hezkuntza sisteman duten ondorioa ebaluatzeke.

Talde parlamentariei aurkeztea ondorioak, bai eta Departamentuari berari ere, hizkuntzen gaineko eztabaidari heltzeke.

Programa honen ezarpena gelditzea arlo guztietan ebaluazioa egiten ez den bitartean, eta hezkuntza komunitatearen erabateko kontsentsua lortu arte, egokitasuna aztertu gabe, alegia.

IIP ingelesaren ikaskuntzarako programak
ez hanka, ez buru, hankaz gora!



PAI programas de aprendizaje del inglés
ni pies, ni cabeza, la casa por el tejado



**ELEANIZTASUNA
BAI, BAINA EZ
EDONOLA!
EUSKARATIK
ELEANIZTASUNERA!**

GASTEIZ Eulogio Serdán, 5 (behea) ☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org	BILBO Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) ☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org	DONOSTIA Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) ☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	IRUNA Descalzos, 72 (behea) ☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org
EHU-UPV Araba ☎ 945013397 stee-eilas.ara@ehu.es	EHU-UPV Bizkaia ☎ 946012435 stee-eilas.biz@ehu.es	EHU-UPV Gipuzkoa ☎ 943018436 stee-eilas.gip@ehu.es	